

Baimendutako jardueren zerrenda

1. Zabortegiak.

2. 7/2012 Legearen II. eranskineko A) idatz-zatian jasotakoak:

a) Erauzketa-jarduerak.

b) Instalazio nuklearrak eta erradiaktiboak.

c) 100 kW-etik gorako potentzia instalatua duten argindarra ekoizteko instalazioak.

c) Industriak, oro har.

d) Azaleraren tratamenduak, pistola bidezko bernizatzeko- eta pintatzeko-lanak edo antzekoak egiten dituzten tailerrak; bai eta motordun ibilgailuak mantentzeko eta konpontzeko lanak eta antzeko lanak egiten dituzten tailerrak ere.

e) Hainbat tailer eta lantegi (aroztegiak, galdaragintza-tailerrak, muntaia-tailerrak, mekanizaziokoak, okindegiak, gozotegiak, cateringak...), baldin eta instalatutako potentzia totala (mekanikoa eta elektrikoa, argiarena kenduta) 25 kW-ekoa edo handiagoa bada eta ekoizpenerako azalera 300 m²-tik gorakoa bada.

f) Biltegiatzeko, salerosketarako eta erakusketarako jarduerak eta instalazioak, toxiko, arriskutsu edo sugarri gisa katalogatuta dauden produktu eta materialak baldin badituzte (500 kg-tik gora, bizitegiarako hiri-lurzoruan, edo 1.000 kg-tik gora, gainerako lurzoruetan).

g) Gasolina-zerbitzuguneak eta hornitegiak, eta erregai likidoak edota gaseosoak banatzeko instalazioak edo antzeko instalazioak.

h) Edozein motatako lurzoruan kokatutako erregai likido eta gaseosoak biltzeko instalazioak, 50.000 litrotik gora badute.

i) Hondakinak bildu, berreskuratu eta deuseztatzeko instalazioak.

j) 500.000 m³ baino gehiagoko lekua daukaten lur eta harkaitzen betelanak, urtebete baino gehiago iraungo badute; azpiegitura linealetarako obrei lotutakoak izan ezik.

k) Hondakin-urak arazteko instalazioak eta edateko ura tratatzeko instalazioak.

l) Arrain-haztegiak.

m) Abere-hiltegiak.

n) Dantza-sala, dantzaleku, klub, diskoteka, disko-bar, karaoke, pub edo antzeko establezimenduak.

o) Ostalaritza-establezimenduak, jatetxeak eta jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-jardueretarako beste establezimendu batzuk, baldin eta, betiere, honako baldintza hauetakoren bat betetzen badute:

- 300 lagun edo gehiagorentzako tokia izatea.

- Lau ohmeko karga estandarrerako 50 wattetik gorako potentzia efikaza duen musika-ekipoa izatea.

p) 20 ALU (azienda larri unitateak) baino gehiagoko abeltzaintzako ustiategiak eta etxeko eskortak, edo ustiategi baliokideak, irailaren 22ko 515/2009 Dekretuaren 3. artikuluko a) idatz-zatian agertzen diren proportzioen arabera, edo horren ordeztarako den araudiaren arabera; txakur-zaindegiak (hazkuntza eta hezkuntza), 25 txakur baino gehiago hartzeko lekua badute; denak ere, baldin eta lurzoru ez urbanizagarrian edo industriarako hiri-lurzoruan badaude.

q) Etxeko abeltzaintza-jarduerak, alegia, 4 ALU (azienda larri unitateak) baino gehiago dituzten instalazioak, eta txakur-zaindegiak, den-denak, bizitegirako hiri-lurzoruan baldin badaude.

r) Errauste-labeak.

s) Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 55. artikuluari jarraiki eta 7/2012 Legearekin bat etorriz, osasunean eta ingurumenean antzeko eragina daukaten beste jarduerak.